



**Arartekoaren ebazpena, 2012ko irailaren 24koa, Bizkaian petrolioa fintzeko garatzen den industria jarduerari buruzko informazio, parte-hartze eta ingurumenaren kontrol prozedurei buruzkoa.**

### Aurrekariak

1. Ebazpen honek auzokideen eta ekologisten zenbait elkartek baita banakako pertsonak ere 2011 eta 2012. urteetan zehar Arartekoaren aurrean aurkeztu dituzten hainbat kexatan dauka oinarria. Erakunde honi helarazitako arrazoi nagusia Muskizen, Abanto-Zierbenan eta Zierbenan kokatutako petrolioa fintzeko plantaren funtzionamendutik pertsonen osasunerako eta ingurumenerako sor daitezkeen ustezko kalteengatiko kezka da.
2. Jasotako erreklamazioek euskal herri administrazioek ingurumenaren eta zonalde horretan bizi diren pertsonen osasunaren babes egokia bermatzeko jarraitutako ingurumena kontrolatzeari buruzko hainbat gertakari eta baldintza azaltzen dituzte. Era berean, ingurumen-informazio eta parte-hartze mekanismoen funtzionamenduari buruzko salaketak gaineratzen dituzte. Zehazki, azaldutako kontuak honakoak dira:
  - 2011. urtean zehar hainbat elkartek Muskizen, plantaren inguruan gertatutako hainbat gertakariri buruzko informazioa helarazi ziguten. Ingurumenaren kontrolean, osasun publikoaren zaintzan eta substantzia arriskutsuek eragindako istripuetatik sortutako arriskuen kontrolean eskumena duten administrazioek jarraitutako kontrol jarduerak baloratze aldera, Arartekoak ofiziozko jarduera bat hasi zuen –erreferentzia zenbakia 27/2011/23, 2011ko ekainekoa–.
  - 2011ko ekainean Turruntero Elkarteak (Turruntero) Muskizko San Juan auzoko herritarrek industria planta horretatik sortutako kutsadura atmosferikoak eta akustikoak eragiten dituzten kalteak zirela-eta aurkeztutako etengabeko salaketen ondoriozko administrazio jarduerari buruzko informazioa jasotzeko beharra azaldu zuen –1179/2011/23 kexa–. Erreklamazioan azaldu duenez, 2002. urteaz geroztik elkarte horrek kexak aurkeztu ditu Muskizko Udalaren aurrean kontu horiek direla-eta. Hala eta guztiz ere, izapide bakar baten berri izan dute, udalak haien kexak jaso dituela alegia. Horrek adierazi dienez, kexa jardueraren enpresa sustatzaileari, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde





Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari (hemendik aurrera Ingurumen Saila) eta Osasun eta Kontsumo Sailari (hemendik aurrera Osasun Saila) helarazi die. Elkartea kezu da, izapide hori eginda, ikuskapenerako, kontrolerako edo zigortzeko administrazio jardueren berri izan ez dutelako.

- Meatzaldea Bizirik Ekologista Taldea elkarteak (Meatzaldea Bizirik) 2011ko urrian bere kexa bidali zigun 2011ko ekainean ingurumeneko informazioa jasotzeko egindako bi eskaerei Ingurumen Sailaren erantzunik jaso ez zuelako. Horietako batek -1751/2011/23- Muskizko San Julián auzoan enpresak ezarritako kutsadura atmosferikoa kontrolatzeko kabinaren inguruan administrazio horren zituen datuei buruzko informazioa eskatzen zuen. Bestalde, elkarteak informazioa eskatu zuen sailaren web orrian Abantoko estazioko kabinan zegoen nitrogeno dioxidoari (NO<sub>2</sub>) buruzko daturik ez zegoelako.

Bigarren erreklamazioan -1752/2011/23- azaltzen zuen Ingurumen Sailak ez ziola erantzunik eman Petróleos del Norte (PETRONOR) enpresak sustatutako petrolio finitzeko jarduerarako gaineratutako ingurumen-baimenean ezarritako baldintzen betetze mailari buruzko informazio eskaerari. Era berean, atmosferara bidalitako igorpenen datuei buruzko eta enpresa horrek jarduerak inguruan zuen eragina ezagutzeko aurkeztutako jarraipen proposamenari buruzko informazioa eskatzen zuen.

- 2012ko urtarrilean Meatzaldea Bizirik elkarteak beste kexa bat bidali zigun planta horren industria jarduera jarraitzeko Muskizko Udaleko batzordearen funtzionamendua zela-eta. Erreklamazioan azaltzen duenez, 2009an Tokiko Gobernu Batzarrak industria jarduera jarraitzeko batzorde bat eratzea eta udaleko talde ekologistak bertan barneratzea erabaki zuen. Egun arte egindako bileretarako elkartea deitu izan zuten. 2011ko abenduan egindako bilerara, berriz, ez zuten elkartea deitu inolako azalpenik eman gabe. Hori dela-eta Arartekora jo du, talde ekologistek jarraipenezko batzorde horretan parte hartzeak duen garrantzia helarazteko, industria jarduera horren garapenerako sor daitezkeen gorabeherak direla-eta.
- 2012ko martxoan Abanto-Zierbenako Las Carreras auzoan bizi diren hainbat pertsonak azken kontu bat bidali dute -espedientea 541/2012/23- martxoan zehar industria jarduerak eragindako kalteak salatuz. Erreklamazioan adierazitakoaren arabera, egun batzuetan zehar gasak, hautsak eta usainek eragindako igorpen kutsatzaileko gertakari bat pairatu zuten eta horrek guztiak





Las Carreraseko herritarren osasunari eragozpenak eta kalteak eragin dizkio. Erreklamatzailleek egoera hori SOS DEIAK larrialdiko arreta zerbitzuan eta Abanto eta Zierbenako Udalean salatu zuten. Jakin izan dutenaren arabera, Abanto eta Zierbenako Udalak Ingurumeneko Sailera bidali ditu salaketa horiek. Horren ondoren, hainbat ikuskapen eta kontrol jarduera bideratu ziren, baina salaketa ezarri zuten herritarrek ez zuten euren erreklamazioekiko inolako erantzunik jaso erreklamazioa egin zuten egunean.

Jasotako erreklamazioak azaldu ondoren, kontuan hartu behar dugu, kontu hauen eta horietatik sortutako administrazio jardueren arteko harremanaren aurrean, egokia dela kontu horien baterako tratamendua egitea Arartekoaren ebazpen honen bidez. Bertan, baterako balorazioa eta horren inguruko ondorio multzoa gaineratzen dugu.

- 3.- Arartekoak hasitako jardueretan azaldutako gertakariak alderatzeko helburuarekin, egokitzat jotzen dugu aipatutako erreklamazioetan eragina duten administrazioetara zuzentzea.
- 27/2011/230 ofiziozko jardueraren inguruan, Muskizko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzako hiru sailari (Osasuna, Ingurumena eta Herrizaingo Saila) informazioa eskatu genien, 2011ko ekaineko gertakariak argitzeko eta gertakariak ezagutu ondoren jarraitutako jardueren berri izateko, ingurumenaren kontrolaren, osasun publikoaren eta substantzia arriskutsuak dituzten istripuetatik sortutako arriskuen kontrolaren ondorio.

Kontu horren inguruan Herrizaingo Sailak adierazi zigun SOS-Deiakek, larrialdiak koordinatzeko zentroa den heinean, kudeatzen eta koordinatzen dituela honelako gertakarien jakinarazpenetik sortutako jarduerak. Ekainaren 16ko gertakarian, plantaren jarduerarekin loturiko zarata eta usainak aipatzen zituzten salaketak jaso ondoren, SOS Deiakek jarduera bat hasi zuen eta gertakariak kontrastatu zituen. Horretarako, polizia patruila baten zerbitzuak eskatu zituen. Halako gertakarietan jarraitutako protokoloa zera da: gertakaria enpresari helaraztea eta, hala dagokionean, Herrizaingo Saileko arrisku eta larrialdietako teknikariei, Ingurumen Sailari eta Osasun Publikoko Zuzendaritzari, organo bakoitzak bere eskumeneko alorraren barnean jardun dezan. Bestalde, Bizkaiko Osasun Publikoko Zuzendaritzak jakinarazi zigun SOS Deiakek gertakariari buruzko informazioa igorri ziela eta, horren ondoren, osasun publikoko larrialdiak bideratzeko teknikariak esku hartu zuela herritarren osasunean izan zezakeen eragina baloratzeko. Kasu honetan ez zen



egokitzen jo larrialdietako osasun jardueraren protokoloa aktibatzea. Administrazio horrek azaldu duenez, alerta eta larrialdien koordinazioa SOS DEIAKi dagokio, enpresaren kanpoko larrialdien planean eta erakunde horren gertakarietarako larrialdien eta taktika operatiboen kudeaketa erregulatzen duen araudian jasotakoaren arabera. Halaber, Muskizko Udalak, zentzu berean, larrialdien inguruan egindako kudeaketaren berri eman zigun eta udaleko larrialdi plana dagoela aipatu zigun.

- Fintzeko jarduerak sortutako kalteak zirela-eta egindako kexen aurrean bideratutako izapideari buruz Turrunterok aurkeztutako erreklamazioa, 1179/2011/23, Muskizko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Osasun Sailei aurkeztu zitzaion.

Muskizko Udalak salaketa idazki horiekin jarraitzen den izapidearen berri eman zigun. Udal administrazio horrek jasotzen dituen kexa guztiak enpresara eta Eusko Jaurlaritzara (Osasun eta Ingurumen Sailak) bidaltzen ditu. Udalak bere idazkian enpresak gertakarien inguruan emandako erantzunak eta 2011ko abuztuan Osasun Publikoak bidalitako erantzuna aipatzen ditu. Hala eta guztiz ere, ez da ageri Turrunterori bidalitako erantzun formalik.

Ingurumen Sailaren ustez, Muskizko Udalak ez zituen salaketak bidali gertakariak jazo ziren unean eta horrek ingurumen-organoaren jarduteko ahalmena murrizten du. Kexek instalazioak sortzen dituen usain, zarata eta igorpenetatik eragindako kalteak dituzte hizpide, ingurumenean eta pertsonen osasunean ahalik eta eragin txikiena bermatzeko ingurumen-baimen integratuan ezarritako baldintzen barnean. Ingurumeneko erakundeak uste du ezinezkoa dela inguruko kalte guztiak ezabatzea. Salaketetan aipatutako kasuek SOS DEIAKen bidez egindako salaketekin bat egiten dute. SOS DEIAK larrialdi guztien zentro koordinatzailea da, ingurumeneko larrialdiak barne. Ingurumeneko larrialdi bat gertatzen denean, SOS DEIAKek Ingurumen Sailaren parte-hartzea eskatzen du. Ingurumenerako arriskua ebaluatzeko airearen kalitate-sareko kabinetan jasotako balioak zehaztasunez egiaztatzen dira eta, beharrezkoa izanez gero, ingurumenerako eraginaren kontrolerako erantzun bat proposatzen da. Turrunteroren kexetan aipatutako kasuetan ez da ondorioztatzen IBIn jasotako neurriez gaindiko bestelakorik eskatuko lukeen plantaren funtzionamendu txarra edo irregulartasuna dagoenik. Hori dela-eta, administrazio prozedura ez da bideratu interesdunei helaraz zekiekeen inolako administrazio ekintzarik. Txosten horretan azaltzen zenez, Ingurumen Sailak inguruko udalekin jardura protokolo bat ezartzea adostu du, Petronorren





instalazioetan jazo litezkeen gertakarien inguruan udalei informatu beharreko egoerak eta modua zehazteko.

Osasun Publikoko Zuzendaritzak bidalitako txostenean adierazi duenez, bere ustez, bidalitako kexak aipatutako gertakariak jazo ondoren jaso ziren. Elkarteko kideekin izandako elkarrizketetan betiere azaldu diete esku-hartze egokia bideratzeko jarraitu beharreko prozedura gertakariak SOS DEIAKen bidez salatzea dela. Larrialdiak koordinatzeko zentroak sail horren esku-hartzea eskatu duen kasuetan, ez da herritarren osasunerako inolako arriskurik antzeman. Nolanahi ere, aurkeztutako kexa ikusita, zuzendaritza horrek elkarteari gertakari hauetan osasun publikoak izandako esku-hartzearekin loturiko txosten guztien kopia bidaliko dio.

- Meatzaldea Bizirik kutsadura kontrolatzeko kabinen ingurumeneko informazioa eskuratzeari buruz -1751/2011/23- eta ingurumen-baimen integratuan (IBI) ezarritako neurrien betetzearen kontrolari buruz -1752/2011/23- egindako kexak direla-eta, Ingurumen Sailak bi txosten bidali dizkigu.

Ingurumen Sailak 2011ko urriko bi eskaerei emandako erantzunaren berri eman digu. Bertan, -lau hilabete ondoren- elkarteari helarazi zizkion jarduerak bere inguruan duen eraginaren jarraipenerako prozeduraren egokitzapena aztertzeke instalazioaren ingurumen-zaintzarako programaren jarraipen eta balorazioari buruz egindako ingurumenaren kontrolerako jarduerak. Era berean, Abantoko kabinaren NO2 kontrolatzaileari buruzko informazioa eskaini zion. Kabina horrek 2011ko ekainaren 30ean jarduteari utzi zion *“neurketa erroreak eta lortutako datuak balioztatzeke aukera eskaintzen ez zuten ziurgabetasunak”* erregistratu baitziren. Ingurumen Sailak hitza eman zuen Abantoko kabinaren NO2 aztertzeke ekipoak aldatzeke neurketetan antzemandako erroreak zirela-eta. Erantzunean erakundeak IBIn ezarritako eskaerak betetzeke aurkeztutako agiriak eta Muskizko San Juliángo kabinan erregistratutako datuak gaineratzen ditu.

Ingurumen Sailak jakinarazi digu neurriak ezarri direla gerta daitezkeen ingurumenaren gaineko eraginaren inguruan herritarrek informazioa errazago eskura ditzaten. Horrela bada, airearen kalitatearen zaintza-sarearen kabinetako datuak bere web orrian kontsulta daitezkeela aipatzen du eta, horrez gain, udalekin protokoloak abian jarri dira informazio eskaerak bateratzeko eta elkarteek gertakarien inguruan aurkeztutako salaketak eta



idazkiak kudeatzeko. Ingurumen-baimen integratuaren baldintzen betetzeari buruzko informazioa bidaltzen egondako atzerapena zela-eta, txosten horiek gauzatzeko fasean zeuden. Era berean, IBIko prozedura honetan herri administrazioen artean beharrezkoa den lankidetzaren jardueraren enpresa sustatzailearen erantzukizuna eta auzoetako elkarten ekintza aipatzen ditu, kutsaduraren prebentzio eta kontrolerako sistema eraginkorra izan dadin ezinbestekoak direnak. Nolanahi ere, Ingurumen Sailaren erantzunean, ezarritako neurri zuzentzaileen egokitasuna eta neurri osagarriak ezartzeko beharra baloratzeko daudela uste du. Hori guztia elkarteei jakinaraziko zaie interesdun diren heinean.

- Bere aldetik, Muskizko Udalak Meatzaldea Bizirik industria jardueraren jarraipenerako batzordearen deialdiari buruz aurkeztutako erreklamazioari erantzun zion. Bere txostenean azaldutakoaren arabera, organo horrek alkatea du buru eta, hala dagokionean *"hau da, egokitzen jotzen denean"* bileretara enpresako ordezkariak, tekniko independenteak, mugimendu ekologistak eta udal talde bakoitzeko ordezkari bat joan ahalko dira. 2011ko abenduaren 7ko deialdiari dagokionez, udala *"egokitzen jo ziren aldeak deitu ziren"* esatera mugatzen da. Nolanahi ere, petrolioaren fintzeko plantaren jardueraren lizentzia emateari buruzko 2009ko otsailaren 10eko Tokiko Gobernu Batzarreko erabakia bidaltzen digu. Bertan, bigarren puntuan, zera erabaki zen: *"Osasuna eta ingurumena zaintze aldera, jardueraren batzorde bat eratuko da. Horren helburua jardueraren garapenean gerta daitezkeen gorabeherak jarraitzea izango da eta alkate-udalburuak edo eskuordetutako zinegotziak zuzenduko du eta udal teknikariek eta, kasuan kasu, enpresak, tekniko independenteek, mugimendu ekologistek eta udal talde bakoitzeko ordezkari batek osatuko dute."*
- Azkenik, 2012ko martxoaren 2tik 25era bitartean jazo zen eta inguru horretan konposatu organiko lurrunkorren (KOL) metaketa eta usaiek eragindako hainbat kalte sortu zituen gertakariaren aurrean Las Carreras (Abanto-Zierbena) auzoko hainbat herritarrek bidalitako erreklamazioa izapidetu da – espediente 541/2012/23–. Kasu honetan Ingurumen Sailari eta Osasun Sailari informazioa eskatu genien kasu honetan osasun publikorako eta ingurumena kontrolatzeko bideratutako neurriak eta pertsona salatzaileei jardueraren emaitza helarazteko ezarritako neurriak ezagutzeko.

Osasun Publikoko Zuzendaritzak 2012ko maiatzean gertakari horren inguruko txosten bat bidali zigun. Bertan, jarraitutako jarduerak azaltzen dizkigu.



Lehenik eta behin, SOS-DEIAK koordinazio zentroak gertakari horiek Osasun Publikoko larrialdietarako teknikariari jakinarazi zizkiola aipatzen du. SOS DEIAK koordinazio zentroak 2012ko martxoaren 11n eta 13an hidrokarburo usaiari eta arreta medikua behar izan ez zuten pertsonen erasanei buruzko dei asko jaso zituzten. 2012ko martxoaren 14an kalteengatiko salaketek jarraitu zuten, beraz, Ingurumen Sailak Las Carrerasera konposatu organiko lurrunkorrek (KOL) neurtzeko unitate bat bidaltzea erabaki zuen. Martxoaren 15ean Ingurumen Sailak Osasun Publikoari jakinarazi zion *“hainbat konposatu organiko lurrunkorren puntak”* antzematen ari zela, beraz, datu horiek bidali zituzten herritarren osasunaren gaineko arriskuaren balorazioa egiteko. Ebaluazio hori kontuan hartuta, bere ustez, Las Carrerako datuek baieztatzen dute hainbat KOLerako –besteak beste, bentzenoa– esposizioa egon zela martxoaren 14ko ordu tarte batzuetan eta, bereziki, martxoaren 15eko 13:00etatik 17:00etara,  $120 \mu\text{g}/\text{m}^3$  baino balio altuagoetara heldu baitzen. Esposizio handiko balio horiek ez zituzten gainditu esposizio kronikoko erreferentziako balioak, herrian neurriak hartzeko erabilitakoak. Kutsadura atmosferikoari buruzko araudiak, kasu honetan airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretuak, erreferentziako balio bat ezartzen du bentzenorako, urteko batez besteko  $5 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko balioarekin. Hala eta guztiz ere, kasu honi erantzuna emateko, Estatu Batuetako Ingurumena babesteko Agentziak erabilitako irizpideak hartu ziren erreferentzia gisa. Agentzia horrek 14 egun baino gutxiagoko esposizio handietarako gutxieneko arrisku maila  $29 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -tan finkatzen du. Hori zela-eta, Ingurumen Sailarekin batera, enpresari ingurumenean eraginik egongo ez zela bermatzeko beharrezkoak ziren neurriak har zitzala eskatzea erabaki zen. Titularrak unitateen gelditze sekuentziala baimendu zuen eta horren ondoren KOLen balioak ohikoak izan ziren berriro ere. Gertakari horren ondorio gisa, Osasun Publikoko Sailak uste du beharrezkoa dela neurriak hartzea KOLerako esposizio handiko gertakari horiek ekiditeko. Horretarako, Ingurumen Sailarekin batera, konposatu toxiko horiek zonalde horretan duten presentzia gehiago zaintzeko beharra baloratzea eta pertsonen osasunean izan dezakeen eragina ebaluatzea proposatzen du. Ezkerraldea-Enkarterriko osasun publikoko eskualdetik jardueren emaitza jakinarazteari dagokionez, interesa duten erakundeei aldian-aldian fintzeko plantaren inguruko esku-hartzeen berri ematen zaie eta, era berean, gertakari horren inguruko txostenaren kopia bidali da.

Ingurumen Sailak 2012ko maiatzean gertakari horren inguruko txostena bidali zigun. Halaber, 2012ko ekainean, Arartekoko aholkulari batek Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzarekin bilera bat izan zuen kontu horren inguruan.



Bidalitako agirietan aipatzen da gertakari horrek fintzeko unitatearen hainbat urtetarako gelditze epe batekin bat egin zuela. 2012ko martxoko lehen egunetan SOS DEIAKen herritarren hainbat kexa jaso ziren hidrokarburo usaia zela-eta. Lehen egunetan sailak ezin izan zuen egiaztatu usainen intentsitatea ezta horien jatorria ere, lekuan bertaratu ziren arren. 13 eta 14tik aurrera, kexak ugaritu ziren, beraz, osasun publikoarekin lankidetzan, neurketarako unitate mugikorra ezarri zen. Instalaturako ekipoak antzeman zuen KOLek hiri inguruan aurkitu ohi diren mailak nabarmenki gainditzen zituela. Martxoaren 15ean fabrika ikuskatzeko bisita egin zen eta inguruan eraginik egongo ez zela bermatzeko beharrezkoak ziren neurriak berehala ezar zitzaten eskatu zen. Era berean, KOL balio altuen jatorriari eta gertakari horiek etorkizunean ekiditeko hartutako neurri zuzentzaileei buruzko informazioa eskatu zen. Ingurumen Sailak azaldu digunez, gertakari horietarako dagoen jarduketa-protokoloaren arabera, jarduerak Osasun Publikoko Zuzendaritzaren, Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzaren eta eragindako udalen artean koordinatu dira. Era berean, udal agintaritza horiei egindako jardueri buruzko txosten bat bidali zaie. Zaintzarako planaren betetzeari dagokionez, 18 igorpen fokutan parametro nagusien neurketa jarraitua eta hainbat parametroren immisioak aztertzen dituzten hiru kabinen sarea daudela azaldu digu. Tximinian ezarritako neurketa ekipoak eta airearen kalitatearen kabinak EAEko airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sarera konektatuta daude. Datu horiek azaltzen dute azken urte hauetan zehar airearen kalitateari buruzko legerian ezarritako parametroak betetzen ari direla. Erreferentziatzko gertakaria salbuespenezko egoera bat da eta, behin gertakari horren inguruko informazioa jasota, tokiko administrazioekin batera, jardueraren zaintza eta kontrolean, herritarrekiko komunikazioan eta erakunde arteko jarduera koordinatuan hobekuntzak identifikatzen saiatuko dira antzeko egoeretan.

Erreklamazioa kontuan hartuta, eta kexaren planteamendua zein udalak igorritako informazioa aztertu ondoren, honako gogoetak helarazi nahi dizkiguzu:

### Gogoetak

1. Ebazpen honen xedea da Muskizen (Bizkaia) garatutako petrolioa fintzeko industria jardueraren gaineko ingurumenaren prebentzioaz eta kontrolaz arduratzen diren herri-administrazioen esku-hartzea hizpide izan duten aurrekarietan adierazitako kexetan jasotako kontuak aztertzea.





Aztertutako erreklamazioen izendatzaile komun bat izan da, azaldu duenez, auzotarrek eta elkarteek administrazio eskudunei aurkeztu dizkien etengabeko salaketei erantzuna emateko prozedura egokirik eza. Erreklamazioek, nagusiki, kutsadura-gertaerak dituzte hizpide, herritarren osasunari eragin diezaieketen substantziak atmosferara igortzeagatik, baita salaketak ere plantaren ekoizpen-prozesuetako kutsadura akustikoagatik. Horregatik, administrazio eskudunak esku har dezan eskatzen dute ingurumenaren arloko kontrola egon dadin eta instalazio horien arriskua prebenitu dadin, bai ohiko funtzionamenduaren kasuetan bai ohiz kanpoko egoera edo salbuespenetzko gertaeren kasuan (erreklamazioetan azaldutakoak). Halaber, hainbat kasutan izandako zailtasunen berri eman digute, adibidez, jarduerari, atmosferara kutsatzaileak igortzeak osasunean eta ingurumenean dituen eraginei buruzko ingurumen-informazioa jasotzeko eta ingurumen arloko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko aurrera eramandako kontrol neurrien gaineko informazio puntuala lortzeko, bereziki, substantzia kutsatzaileen igorpen eta immisiorako mugako balioei dagokionez. Pertsona eta elkarte horiek adierazi dute Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari dagozkion ingurumen arloko ikuskapen- eta kontrol-ahalmenen ziozko erabakiak hartzerakoan modu aktiboan parte hartu nahi dutela, baita industria jarduera horren udal jarraipeneko beste organo batzuetan ere.

Mahaigaineratutako alderdiak modu sistematikoan jorratzeko asmoz, lehenengo eta behin, kontu honetan, industria instalazioari dagokionez, aplikatu daitezkeen kontrol- eta prebentzio-mekanismoen balorazioa egingo dugu. Horrez gain, komenigarria da kontuan hartzea planta honen funtzionamenduan jazotako gorabeheren ondotik aurkeztutako erreklamazioei erantzuna emateko jarraitu den administrazio prozedura. Azkenik, ingurumen arloko informazioa eta erabaki publikoak hartzeko proposatutako herritarren partaidetzarako mekanismoak eskuratzeko aukerari buruz planteatutako erreklamazioak aztertuko ditugu.

## **2. Industria instalazio honetan kutsaduraren kontrol eta prebentziorako mekanismoak**

- Hidrokarburoak fintzeko planta hori 70. hamarkadatik abian dago eta Muskiz, Abanto-Zierbena udalerrien arteko 220 hektareako azalera batean dago.

Dimentsio handiek, industria prozesuan substantzia arriskutsuak egoteak eta Muskizko eta Abanto-Zierbenako (Las Carreras) hiriguneetatik gertu egoteak



eragin du inguruko auzotar batzuk eta zenbait auzotarren elkarte eta elkarte ekologista kezkatuta egotea.

Gizarte izaerako kezka legitimo hori atmosferara igorpen kutsatzaileak egiteak ekar dezakeen ingurumenerako eta pertsonen osasunerako arriskuaren ondoriozkoa da, baita urbanizatutako inguru batean egoteagatik industria jarduera horren istripu larrien arriskuaren ziozkoa ere.

Azaltzeko helburuarekin, kontuan hartu behar dugu osasuna babesteko eskubide hori –Espainiako Konstituzioko (EK) 43. artikulua– eta ingurumena babestekoa –EKko 45. artikulua–, printzipio konstituzionaltzat jotakoa, garrantzia duten konstituzio izaerako beste batzuekin bateratu behar direla; adibidez, enpresa askatasuna eta produktibitatearen defentsa –EKko 38. artikulua–, jarduera horiek dakarten gizarte eta ekonomia aurrerapena –EKko 4. artikulua– eta jabetza eskubidearen baliatze askea legeek esleitzen dioten gizarte funtzioaren barruan –EKko 33. artikulua–.

Halaber, ingurumen egokia izateko eskubidea onartu da, EKko 18. artikuluan jasotako etxebizitza ezin bortxatu izanaren konstituzio eskubidea aplikatuz. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak haren jurisprudenzian ingurumenaren eta pertsonen osasunaren babesa bateratu du Giza Eskubideen Europako Konbentzioaren 8. artikuluko etxebizitza eta bizitza pribatua errespetatzeko eskubidearen bitartez. Konbentzioaren 8. artikulua eskubide hori babesten du, ez bakarrik espazio fisiko arruntzat jotakoa, baita lasaitasun osoz espazio horretaz gozatzeko eskubidetzat jotakoa ere. Etxebizitza errespetatzeko eskubidearen aurkako urratzeek eraso materialak edo korporalak ez ezik, zarata, igorpenak, usainak eta beste ingurumen-injerentziak ere jorratzen dituzte. Ingurumen kalteak larriak badira, pertsonak batek haren etxebizitza errespetatze dadin duen eskubidea kendu diezaiokete, ezin baitu haren etxebizitzaz gozatu; *Moreno Gómez* gaia [Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2004/68 Epaia, azaroaren 16koa]. *López Ostra* gaian (Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1994/3 Epaia, abenduaren 9koa), arazketa estazio batek igorritako zarata eta usainei buruzkoan, auzitegiak hauxe ebatzi zuen: *“atentados graves al medioambiente pueden afectar al bienestar de una persona y privarle del disfrute de su domicilio de manera que perjudiquen su vida privada y familiar, sin que por ello se ponga en grave peligro la salud del interesado”*. *Guerra y otros contra Italia* kontua (Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1998/2 Epaia, otsailaren 19koa) hauxe esanez amaitu zuen: *“la incidencia directa de las emisiones de sustancias nocivas sobre el derecho de*





*los demandantes al respeto de su vida privada y familiar permite concluir con la aplicabilidad del artículo 8" . Powell y Rayner contra Reino Unido* kasuan (Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1990/4 Epaia, otsailaren 21ekoa), auzi-jartzaileak egunean zehar hegazkinen hegaldiek sortutako kutsadura akustikoagatik kexu ziren horretan, auzitegiak esan zuen 8. artikulua aplikagarria zela, kontuan hartuta *"el ruido de los aviones del aeropuerto de Heathrow había reducido la calidad de la vida privada y el atractivo del hogar de los demandantes"*.

Eskubide horren urratzei buruzko adibide gisa, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak administrazioaren atzerapena dauka hizpide, hain zuzen, Italiako ongarrien fabrika baten arriskuak ebaluatzeko oinarrizko informazioa bidaltzerakoan –*Guerra y otros contra Italia* (Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1998/2 Epaia, otsailaren 19koa)– edo hondakinak tratatzeko planta baten ingurumen eraginaren gaineko ebaluazioan jazotako atzerapenagatik –*Giacomelli contra Italia* gaia (Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 20006/64 Epaia, azaroaren 2koa) –. *Bacila contra Rumania* gaian (Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2010/96295 Epaia, martxoaren 30ekoa), auzitegiak xedatu zuen hitzarmeneko 8. artikulua urratu zela agintari publikoak ez baitu ahalmenik neurriak hartzeko, hain zuzen, enpresa kutsatzaile bat behartzeko inguruan bizi diren herritarren ongizatearekin bat datozen mailetara murrizteko neurriak har ditzan eta honako egoera honen aurrean: *"la existencia de graves y acreditadas consecuencias para la salud de la demandante y otros habitantes"*.

Azken batean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eskatu du egiaztatzeko ingurumen arloko kalte edo arrisku hori, larria eta jarraitua, egon badagoela eta agintari publiko arduradunak ez dituela hartu eskubide horren eta legean jasotako beste interes publiko batzuen arteko oreka lortzeko beharrezko neurriak (interesak hala nola, segurtasun publikoa, herrialdearen ongizate ekonomikoa edo hirugarrenen beste eskubide batzuk), estatuak neurri horiek hartzeko apreziazio-tarte handia edukita.

- Eskubide eta printzipio horiek behar bezala babeste aldera, Espainiako egungo ordenamendu juridikoak, eskubide komunitarioak hala eskatuta, ingurumenari eta pertsonen osasunari eragin diezaioketen industria jarduera kutsagarrienak kontrolatu eta prebenitzeko sistema xedatu du. Aipatu kontrolak honakoak hartzen ditu aintzat: ingurumen–baimen integratua eskatzeko beharra,



ingurumenaren gaineko eragin egokia eta beharrezko babes industria arriskuen aurrean.

Kontseiluaren irailaren 24ko 96/61/EE Zuzentarauak, kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzkoak, eta kutsaduraren prebentzioa eta kontrol integratua hizpide duen uztailaren 1eko 16/2002 Legeak (16/2002 Legea) kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema txertatu dute eta, 1. artikuluan jasota dagoen moduan, xedea da *“atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsadura saihestu edo, ahal den neurrian behintzat, murriztu eta kontrolatzea”*. Ingurumen-kontrol integratuaren sistema horrek egungo jardura sailkatuen lizentzien sistema osatzen du indarrean jarri arte, EAEko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra aplikatuz (3/1998 Legea).

Industria jardueren kutsaduraren kontrol hori modu intrintsekoan dago lotuta instalazio horretarako proiektuaren ingurumen eraginaren aurretiko ebaluazioari, legeetan xedatutako kasuetan (85/337/EE Zuzentaria eta ondorengo aldaketak 97/11/EE Zuzentaria eta 2003/35/EE Zuzentaria) eta kasuan kasuko egoeretan instalatzeko esparrua ezartzen duten planen eta programen ingurumen arloko ebaluazioa estrategikoari (2001/42/EE Zuzentaria). Proiektuen ingurumen eraginaren gaineko ebaluazioari buruzko legearen testu bategina onartzen duen indarreko urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren eta plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eraginaren gaineko ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen bitartez sartu da aurretiko kontrol hori. Halaber, Euskadin 3/1998 Legeari jarraiki ingurumen eraginari lotuta dauden berariazko jardura eta planen zerrenda bat dago.

Substantzia arriskutsuak dituzten industria instalazioak badira, araudi komunitarioak hainbat zuzentari txertatu ditu substantzia arriskutsuak tartean daudenean istripu larriei lotutako arriskuen kontrolari buruzkoak. Horiek *“Seveso zuzentariak”* dira eta izen hori eman zaie 1976. urtean izen hori duen Italiako herrian istripuz dioxina isuri zelako. Hala, kontseiluaren 1996ko abenduaren 9ko 96/82/EE Zuzentaria, 2003/105/EE Zuzentariaren bitartez aldatua. Xedapen horiek Espainiako ordenamenduan jaso dira uztailaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretuaren bitartez, baita 948/2005 Errege Dekretuaren bidezko aldaketak ere, istripu larrien behar bezalako prebentzioa gehitu eta horren ondorioak mugatzeko pertsonak, ondasunak eta ingurumena babeste aldera.





- *PETRONOR*en jarduerari dagokionez, ingurumen-organoak, aurrekarietan adierazitakoarekin bat, esan digu industria instalazio horrek martxan egoteko dagokion ingurumen-baimen integratua duela petrolioa fintzeko jarduerarako – 2008ko maiatzaren 6ko ebazpenaren bidez–. Horrez gain, ingurumen eraginaren deklarazio bat eta bigarren ingurumen-baimen integratua izapidetu dira –2008ko azaroaren 19ko ebazpenaren bidez– fuel-olioaren ekoizpena murrizteko unitate berrien ondoriozko zabaltzerako eta energia elektrikoaren kogenerazio planta bat bideratzeko (URF).

Ebazpen horiek behar den ingurumen-baimen administratiboa dakarte, 16/2002 Legean xedatutakoari jarraiki, eta instalazioak ustiatzeko baldintzak eta substantzia kutsatzaileen igorpenen balio mugak gehitzen dituzte. Halaber, ingurumen ebazpenak barne hartzen du indarreko uztailaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretuarekin bat etorritik eskatutako prebentzio –eta kontrol-baldintzen betetzea. Aipatu dekretuaren bidez substantzia arriskutsuak tartean daudenean istripu larriei lotutako arriskuen kontrolerako neurriak onartzen dira.

Ebazpen honen xedea ez da beste ebazpen horien edukia aztertzea, kontuan hartuta administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzea eragin dutela eta fintzeko jardueraren IBlren kasuan, lehenengo instantzian, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ebatzi duela.

Hortaz, jarduera horren funtzionamendu eremua da ingurumen-organoaren ebazpenaren bidez xedatutakoa eta horrek, besteak beste, ezartzen ditu atmosferara egindako igorpenak kontrolatzen dituen ingurumen-zaintza eta jarduerako immisioen jarraipena haren inguruan.

Bidalitako informazioan ingurumen-organoak dio jardueraren ohiko funtzionamenduak airearen kalitateari buruzko legeetan jasotako parametroak betetzen dituela. Hala, adierazi du tximinian jarritako neurketa-ekipoak eta airearen kalitaterako kabinak EAEko airea kontrolatzeko zaintza – eta kontrol-sareari konektatuta daudela.

Azken batean, Ingurumen Saila da ezarritako neurriak erabat betetzen direla bermatu behar duena enpresak bidalitako urteko informazioarekin bat, hark ingurumen-zaintzako programaren bitartez egiazta dezan, eta industria jardueraren jarraipenerako dituen kanpoko kontrol-mekanismoekin bat.





- Agerian jarri behar da, ingurumen-baimen integratu horren ostean, herritarrek etengabean aurkeztu dituztela salaketak izaera anitzeko gertaeren ondotik ingurumenari eta fabrikaren inguruan bizi diren pertsonen osasunari eragin diezazkien ondorioak jorratuz.

Erreklamazioek zati batean jarduerari ezarritako neurrien erabateko betetzea justifikatzeko premia dute hizpide, ingurumen kalteak prebenitu eta saihesteko.

Hala ere, IBIn jasotako ingurumen exigentziak bete arren, industria jarduera baten funtzionamenduak hainbat eragozpen sor diezazkieke inguruan bizi diren herritarrei.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzian aurretik azaldutakoaren arabera, pertsona horiek haien bizitza pribatua eta familiako izateko duten eskubidearen edukiak eta urratu ezintasun horrek esku-hartze publikoa behar dela agerian jartzen du giza osasunean ondorio kaltegarriak izan ditzaketen eragozpen horiek saihesteko.

Kalte horiek zuzentzeko, ingurumen-organoak baliabideak ditu kutsadura herritarren ongizatearekin bat datozen mailetara murriztu eta minimizatzen, kontuan hartuta industria jarduera eskuragarri dauden teknika onenetara egokitu behar dela eta kokapen geografikoa eta ingurumenaren tokiko baldintzak aintzat hartu behar dituela. Gauzak horrela, 16/2002 Legearen 26. artikulua ingurumen-baimen integratua aldatzeko aukera ezartzen du. Ingurumen-organoak ofizioz kontuan har dezake neurri berrien ezarpena, instalazioaren zioz jazotako kutsadurak ezarritako balio mugak berraztertzea edo beste berri batzuk hartzea dakarrenean, eskuragarri dauden teknikak hobetzearen ondotik igorpen horiek modu nabarmenean murriztu daitezkeenean, edo jardueraren funtzionamenduaren segurtasunak beste teknika batzuk baliatzea dakarrenean.

lido horretan, kontrol –eta ikuskapen-lanak baliatzean, kasu gehienetan herritarren salaketen ondoriozkoak, ingurumen-organoak ezarritako neurri zuzentzaileak aldatzea proposatu du unitateak geratu eta abiarazten direnerako –2010eko apirilaren 15eko ebazpenaren bidez–. Halaber, ingurumen-organoak uste du, erregistratutako gorabeheren ondotik eta ingurumena zaintzeko programaren bilakaeraren arabera, jarduera zaindu eta kontrolatzerakoan hobekuntzak identifikatu nahi direla eta, bertan, kontrolerako neurri osagarriak gehitu daitezkeela.





Laburbilduz, Ingurumen Sailak, herritarrek aurkeztutako salaketei erantzuna emanez, neurri osagarriak gehitu eta proposatu ditu igorpenak kontrolatu eta jarduera horren inguruan duen eragina murrizteko.

- Industria jarduera zaindu eta kontrolatzeko hobekuntza-proposamen horien artean, Ingurumen Saila, tartean dauden gainontzeko administrazioekin koordinazioan arituz, 2012ko martxoan jazotako gorabehera aztertzen ari da, neurri gehigarri berriak hartu nahi baititu plantaren inguruan bizi diren herritarrak ahalik eta gutxien egon daitezen konposatu organiko lurrunkorren kontzentrazio larrien edo berezien eraginpean.

Aurrekarietan azaldu diren egoeretan, herritarrak hainbat konposatu organiko lurrunkorren (tartean bentzenoa edo toluenoa) eraginpean egon direla egiaztatu ahal izan du Ingurumen Sailak.

Bentzenoaren ezohiko balioak antzeman direnean, herritarrengan duen esposizioaren arrisku-maila baloratu da eta neurri jakin batzuk hartu behar izan dira, inguruan eraginik ez duela bermatzeko. Horrenbestez, Ingurumen Sailak, Osasun Sailarekin koordinatuta, eragin hori murrizteko neurriak hartzeko eskatu zion PETRONORi 2012ko martxoan eta, beraz, unitateak sekuentzialki eten ziren.

Hori horrela, ingurumenaren administrazioa eta osasun publikoaren arduraduna konposatu organiko lurrunkor (KOL) batzuen (bentzenoa kasu) esposizio altua izan duten gertaerak zehatz-mehatz baloratzen ari dira. Europako eta estatuko araudiak bentzenoaren kasuan soilik arautzen du esposizio kronikoaren muga-balioa, konposatu organikoei dagokienez. Hala bada, bentzenoaren muga-balioa airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretuan adierazitakoa da eta urtean 5  $\mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko balioa ezartzen du.

Hala ere, kasu zehatz honetan Osasun Publikoaren Zuzendaritzak beste organismo batzuen jarduera-balioak erabili zituen erreferentzia gisa, besteak beste, Ameriketako Estatu Batuetako sustantzia toxiko eta gaixotasunen erregistrorako Agentziarenak (ATSDR). Agentzia honek pertsonen esposizio altuko maila jakin batzuk aurreikusten ditu bentzenoaren halabeharrezko esposizioetarako. Bentzenoaren eguneroko esposizioa, denbora-tarte jakin batean kontrako ondoriorik sortu gabe, hau da, *Minimal Risk Level* (MRL) deritzona, 29  $\mu\text{g}/\text{m}^3$ -koa da esposizio altuetarako (14 egun edo gutxiago).





2012ko episodioan Osasun Publikoko Zuzendaritzak bi kalkulu egin zituen, martxoaren 14ko 18:57tik 15eko 12:05erako tartearen eta 15eko ordutegi-neurrien artean. Emaitzetan 30 eta 34  $\mu\text{g}/\text{m}^3$ -eko datuak antzeman ziren, hau da, apur bat gainditu egin zen MRL balioa.

Osasun Publikoko Zuzendaritzak adierazitakoaren arabera, balio horiek gainditzeak ez du nahitaez esan nahi osasunerako ondorio okerrak daudenik, baina honelako egoerei buruzko ikerketa orientatzeko adierazle dira. Osasun-administrazioak honako ondorioak atera zituen: nahiz eta kutsadura-episodio horrek ez zituen urteko batez besteko erreferentzia-balioak gainditu, KOLen ezohiko kontzentrazio horiek kontuan hartuta nahitaezkoa da bitarteko oro eskuragarri jartzea, halako esposizio alturik berriro egon ez dadin. Horretarako, Ingurumen Sailarekin batera egoera baloratzen ari dira, osasunean eta ingurumenean duen arriskua ebaluatzeko.

Arriskuaren ebaluazio zehatza egite aldera, herritarren esposizio-denbora eta eragin handieneko uneak hartu beharko lirateke kontuan. Hau da, episodioaren iraupen-egun guztiak, unitate mugikorra jarri baino hainbat egun lehenago hasi baitzen. Bestalde, laginketaren txostenak 2012ko martxoaren 14tik aurrerako ordutegien emaitzak jaso zituen arren, esposizio-mailarik altuena izan zuen unea 13:00etatik ( $127 \mu\text{g}/\text{m}^3$ ) 17:20ra (balio normalera murriztu zen,  $5,29 \mu\text{g}/\text{m}^3$ ) bitartekoa izan zen. Lau orduko tarte horretan 14:15eko datuak soilik sartu dira, baina erregistratutako esposizio-unerik altuenetako bat antzeman da,  $124 \mu\text{g}/\text{m}^3$ , hain zuzen ere. Ondorioz, esposizio altuko maila horrek hainbat orduz iraun ahal izan zuela pentsa daiteke.

Jakina denez, Osasunaren Mundu Erakundeko Minbizi Ikerketen Nazioarteko Zentroak bentzenoa pertsonentzako kartzinogenoa dela zehazten du. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko azaroaren 16ko 2000/69/CE Zuzentarauak, airean egon daitezkeen bentzeno eta karbono-monoxidoaren muga-balioak ezartzen dituenak, honakoa dio: *“bentzenoa agente genotoxiko kartzinogenoa da eta ezin da zehaztu gizakien osasuna arriskuan jartzen ez duen muga-baliorik”*.

Horrenbestez, Zuzentarau honek gutxienezko balio-muga batzuk ezarri zituen Europar Batasun osorako, baina estatu-kideek babes handiagoko neurriak hartu zitzaizketela adierazi zuen. Zuzentarau honek gizakiaren osasuna babesteko ezarritako gutxienezko balio-muga urtean batez beste  $5 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -koa izan da. Lehen esan dugun bezala, urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretuak,





airearen kalitatea hobetzeari buruzkoak, urteko batez besteko balio berbera ezarri du,  $5 \mu\text{g}/\text{m}^3$ , alegia.

*Exijentzia handiagoak ezartzeari dagokionez*, Europako Batzordearen 2008ko maiatzaren 30eko gomendioa aipatu beharra dago, bentzenoaren arriskua murrizteko neurriei buruzkoa, C(2008) 2271. Agiri horren oinarria bentzenoak gizakiaren osasunerako eta ingurumeneko duen arriskuari buruzko ebaluazio berri bat da. Ingurumenaren bidez bentzenoaren eraginpean dauden pertsonen dagokienez, zera dio: administrazio errepikatuagatik, mutagenizitateagatik edo kancerogenizitateagatik sortutako toxikotasun-arriskuek pizten duten ardurarik ikusita, arrisku hori murrizteko neurri zehatzak hartu behar dira. Bentzenoak ekoitzi edo eraldatzen den tokietan hondakin-ur industrialen araztegiarako arrisku posibleak ezabatzeko neurri zehatzak hartze aldera, Europako Batzordeak gomendatu du dagokien estatu-kideetako agintari eskudunek ezarri behar dituztela ingurumen-baimen integratuetan bentzenoaren gaineko baldintzak, isurien muga-balioak edo parametro edo neurri tekniko baliokideak, teknika erabilgarririk onenak (TEO) aplikatze aldera, dagozkien instalazioen ezaugarri teknikoak, horien kokapen geografikoa eta tokiko ingurumen-baldintzak aintzat hartuta.

Kontuan hartu behar da autonomia erkidegoek, arrazoiz justifikatuz gero, babes-arau osagarriak arautu ditzaketela estatuko administrazioak sustantzia kutsakorretarako ezarri dituen isurpeneko muga-balioei dagokienez, halaxe ezartzen baitute airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legeko 5.2 artikulua eta 16/2002 Legeko 7. artikulua. Horretarako, organo autonomiko eskudunak kontuan hartu behar du bai arriskuaren ebaluazioa, bai berau mugatzeko estrategia bat ere, gai hau arautzen duen arreta-printzipioa aplikatuta, 2000ko otsailaren 2ko Batzordeko arreta-printzipioaren errekurtsioari buruzko azken komunikazioan (COM (2000) 1) aurreikusitako baldintzetan. Era berean, bentzenoaren esposizio altuetarako balio zehatzak zehaztuz gero, prozesu horietan esku hartzen duten agente guztien beharrezko segurtasun juridikoa bermatuko litzateke, bai betebeharrak horiek ingurumen-baimen integratuan (IBI) sartzeko orduan, bai horiek formalki aplikatzeko eskatu ahal izateko.

Ondorioz, gogoan izan behar da herritarren esana izan zela 2012ko martxoko episodio hau baloratzeko administrazio-jardura eragin zuena. Izan ere, hainbat egunez jasan behar izan zituzten inguruan egondako KOL isurien ondorioak. Edonola ere, kasu honetan hartutako neurriek ingurumeneko eta osasun



publikoko administrazioaren administrazio-jarduera koordinatua islatzen dute eta horri esker, hain zuzen ere, ohiko balioen gaineko KOL isurien episodio hau zuzendu ahal izan da.

Hori horrela, bat gatoz administrazioek beren txostenetan kontzentrazio altuko episodio jakin hauei buruz jasotako ardurarekin eta KOLen (bentzenoa kasu) esposizio altuak saihesteko neurri egokiak hartzeko beharrarekin. Aipatu bi administrazio horiek episodio hauen arriskuak ebaluatu eta murrizteko asmoz aurreikusi dituzten neurrien barruan, osasunerako arrisku gehien eragiten duten KOLen (bentzenoa kasu) esposizio altuetarako muga-balioak proposatzeko aukera kontuan hartu beharko litzateke.

- Bestetik, ingurumen-organoak IBIn azaldu duenez, **istripu larriei aurre hartzeko politiken** ondoriozko exijentziak bete direla egiaztatu da.

Araudi honetan azaltzen diren exijentzien barruan, ukitutako industriek istripu larriei aurre hartzeko politika egokia egiteko betebeharra dute, pertsona, ondasun eta ingurumena maila altuan babesten direla bermatze aldera. Horretarako, segurtasun-txosten bat egin behar dute, istripu-arriskuak ebaluatzeko eta horiek prebenitu edo ondorioak mugatzeko neurriak proposatuko direlarik. Hau da, enpresak larrialdietarako barne-plana egin behar du eta autonomia-erkidegoko segurtasun industrialeko organo-eskudunak, bestetik, larrialdietarako kanpo-plana. Kanpo-plan horretarako, herritarren partaidetza eta informazioa beharrezkoak dira (indarreko 1254/1999 Errege Dekretuko 11.6 eta 13 artikulua) eta hiru urtetik beherako epeetan berrikusi behar da. Administrazio eskudunak zehatz-mehatz aztertu beharko ditu beren kokapena dela eta edo substantzia arriskutsuak izan ditzaketen establezimenduekiko hurbiltasuna dela eta "domino" efektua izan dezaketen istripuak. Kasu horietan, industriren eta ukitutako herritarren artean komunikazio-protokoloa ezarri behar dute.

Lurralde-antolamenduko eta hirigintzako politikei dagokienez, indarreko 1254/1999 Errege Dekretuko 12. artikulua dio administrazio eskudunek "*epe luzera*" kontuan hartu behar dutela araudi honen eraginpeko establezimenduen eta beste inguru batzuen (egoitzak, etxebizitzak, eraikinak eta jendetza batzen duten inguruak) artean distantzia egokiak zaindu behar direla, eta, biak batera badaude, neurri tekniko osagarriak hartu behar direla.





Araudi hori aplikatuta, Petronor etxearen larrialdietarako kanpo-plana onartzen da. Plan hori jendaurrean egon da, haren gaineko ebazpena argitaratu baitzen 2004ko azaroko EHAAn. Planean hainbat aktibazio-irizpide aurreikusten dira, istripuaren ondoriozko jarduera-beharrizanen eta haren ondorioen arabera. Egoera horietan istripu ez katastrofikoak kudeatzeko aurreikusitako taktikak garatu ahalko dira, edo, larrialdi handiagoko kasuetan, hiru jarduera-egoera aurreikusiko dira, istripu-motaren arabera. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak jarduera honen arriskuei buruzko informazioa dauka bere webgunean).

Industria-jarduera arriskutsuen arriskuei aurre hartzeko eska daitezkeen planifikazio-tresna desberdinak hedatu eta informazio egokia bermatzea oso garrantzitsuak direla aipatu beharra dago. Kasu honetan, industria-arrisku honen gaineko administrazio eskudunek eguneratuta eduki behar dituzte tresna hauek, larrialdietarako kanpo-plana barne. Eguneraketa-prozesuetan, administrazioen arteko koordinazioarekin batera, interesa duten pertsona eta elkarteek partaidetza egokia bermatzea ezinbestekoa da.

### **3. Aurkeztutako erreklamazioei erantzutako jarraitutako administrazio-prozedura**

Erreklamazioa aurkeztu duten elkarteek artean piztutako arduraren nagusietako bat zera da, zarata, usain, eta, kasu zehatz batzuetan, osasunerako kalteen (narriadura, okadak) ondoriozko eragozpenak salatzen dituzten pertsona eta elkarteek aurkeztutako erreklamazioei erantzunik eman ez zaiela.

Eragozpen horiek mota desberdinetakoak izan daitezke eta administrazioaren esku-hartze azkarra eska dezakete; beste batzuetan, aldiz, garrantzia txikiagoko eragozpenak izan daitezke eta administrazioak ez dauka zertan esku hartu, ingurumen-baimenean ezarritako neurriak urratzen ez direlako edo gizakiengan eta ingurumenean ez dutelako eraginik.

Aurrekarietan azaldu diren gertaera desberdinak kontuan hartuta, zaila da gertaera horietako bakoitza eta administrazio eskudunak eman beharreko erantzuna katalogatzea.

Ingurumen-organoak ingurumena zaintzeko aurreikusi duen sistemari esker, ofizioz bermatu daiteke ezarritako neurri zuzentzaileen kontrola. Hala ere, onartu beharra dago herritarrek lan handia egin dutela ingurumena babesteko orduan eta laguntza handia eman dutela ingurumena kontrolatzeko eskumenak erabiltzean. Aipatzekoa da, era berean, kasu batzuetan herritarrek salaketetan



erakutsitako irmotasunari esker baieztatu ahal izan direla erreklamazioen jatorria eta mota (adibidez, 2012ko martxoko azken gertaera).

Kasu batzuetan salaketen arrazoia kanpo-seinale nabarmenak dira, esate baterako jardueraren inguruko aire-kalitatea kontrolatzeko kabinetan edo isuriguneetan aztertutako parametroetan ohikoak baino balio altuagoak antzematen direnean, ekoizpen-unitateak martxan jarri edo eteterakoan ezohiko prozesuak agertzen direnean edo enpresak egoera arraroak identifikatzen dituenen. Beste batzuetan, aldiz, salaketak ez datoz bat erraz antzeman daitezkeen seinale edo egoera horiekin.

Zailtasun hori gorabehera, eragozpen eta kalte horien eragina jasaten duten pertsonak edo hala uste duen edozeinek salaketa jar dezake eta administrazioari egoeraren berri eman diezaioke, hark, ingurumen-administrazioaren bitartez, behar bezala balora dezan egoera, kasuan kasu, ezarritako neurri zuzentzaileak urratu ote diren aztertuta. Ingurumen-kontrolaren kasuan, ingurumenaren legezkotasuna betetzen dela eskatzeko ekintza publikoa nabarmendu behar da (Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteari buruzko otsaileko 3/1998 Legeko 3.4 artikulua).

Hala bada, orokorrean, herritarrek eta elkarteek edozein unetan planteatu dezakete salaketa bat administrazio eskudunetan, horiek, aurretiazko eginbideak gauzatu ondoren, behar bezala balora ditzaten gertaerak, kautela-neurriak hartzeko beharrezana eta, ingurumenaren gaineko araudia betetze aldera, neurri zuzentzaile edo zigortzaileak ezartzeko beharra.

Erreklamazio hauetan azaldutako kasuetan jarraitu den prozedura edo protokoloak hainbat gabezia ditu eta administrazioak ezin izan ditu konpondu. Kezka nagusia zera izan da, batzuetan salaketa jarri duten pertsonak zailtasunak izan dituztela organo eskudunek jarraitutako tramite edo administrazio-jarduerak ezagutzeko.

SOS DEIAK koordinazio-zentrorra telefono bidez egindako salaketen kasuan nahiz idatziz udal-zerbitzuetara aurkeztutako kexetan (gero udalek ingurumen-organoei eta osasun publikoko arduradunari igortzen dizkiolarik, besteak beste) antzeman daitezke gabezia horiek.

Kasu horietan, telefono bidezko kexa edo salaketaren formatuari esker azkar ezagutu daitezke gertaerak eta, larrialdiko kasuak izanez gero, laster



erreakzionatu daiteke. SOS DEIAKen koordinazio-zerbitzuaren zerbitzугutunaren arabera, salatzaileak larrialdi baten egoeraren edo tramitazioaren berri izateko eskubidea dauka. Nolanahi ere, ingurumeneko eta osasun publikoko organoak jakinaren gainean jarri ondoren, beti ez dela jarraitutako administrazio-jarduerei buruzko informazioa azaltzen salatu dute elkarrekin. Zehaztu beharra dago, hala ere, Osasun Publikoko Zuzendaritzara bideratutako salaketetan, Turruntero Elkarrekin aurkeztutako erreklamazioaren kasuan, administrazio horrek jarraitutako tramiteen berri eman duela, hala idatziz, nola eskatutako informazio-bileretan.

Ingurumen Sailaren kasuan, ordea, Turrunterok aurkeztutako kexei ez zaie erantzunik eman. Erreklamazio horri emandako erantzunean, administrazioak zera argudiatu du, enpresari ezin izan zaionez irregulartasunik edo funtzionamendu okerrik egotzi, ez dagoela jakinarazi beharreko administrazio-egintzarik. Hala eta guztiz, 2012ko martxoko gertaeraren kasuan aurkeztutako salaketetan jakinarazpenak egin dira, dela zuzenean, dela ukitutako udalen bidez.

Era berean, Ingurumen Sailak dio orain arte egon diren gertaeretan herritarrekiko komunikazioa hobetzeko urratsak identifikatzeko saiakera egingo duela.

Aitortu beharra dago zaila dela administrazio bakoitzak jarraitutako jardueren jakinarazpen puntuala bermatuko duen protokolo bat ezartzea. Izan ere, larrialdiak koordinatzeko zentroak erabiltzen duen erreklamazio-sistemak ez du erraztasun handirik ematen. Salaketa-mota kontuan hartuta, SOS DEIAKi berehala ematen zaio gertaeraren berri, egoeraren lehenengo balorazioa egin dezan, eta, hala badagokio, larrialdi, ingurumen edo osasun publikoaren gaineko eskumenak dituzten administrazioekin batera erantzun koordinatua eman diezaion. Hala eta guztiz, larrialdi-zerbitzuen koordinazioak edo telefono bidezko komunikazioak gorabehera, esku hartzen duen administrazioak bete egin behar ditu administrazio-prozeduraren ondorioz dagozkion betebeharrak.

Orokorrean, administrazio publikoek, herritarrekin dituzten harremanetan, administrazio-prozedura bidez bideratu behar dituzte beren funtzio publikoak. Administrazio-jarduera horren jatorriak bi helburu ditu: batetik, administratuen eskubideak bermatzea, eta bestetik, interes publikoa ziurtatzea.





Izan ere, Espainiako Konstituzioak berak (103.1 eta 105 artikulua) jasotzen du administrazio-tramiteen eta herritarrenganako erantzunaren bermea. Halaber, herritarrek administrazio ona jasotzeko eskubidea daukate, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuneko (Lisboako Itunaren bidez egina) 41. artikuluan adierazitakoari jarraiki.

Administrazio ona jasotzeko eskubide honen barruan aipa genezake aurkezten diren idazkiak jaso izanaren berri emateko, hori ofizioz sustatzeko eta planteatutako gaiari beren-beregi erantzuteko betebeharra. Halaber, administrazioak pertsona interesdunei jakinarazi behar die zein eskubide dituzten beren asmoa betetzeko. Nahiz eta kexa edo interesdunaren asmoa ez izan oso zehatza edo erreklamazioa administrazioaren jardura-eremutik at egon, administrazio publikoak aipatutako betebeharrak horiek bete beharko ditu.

Ildo horretatik, administrazioak aurreikusitako jakinarazpen-formatuetako edozeinetan (idatziz, telefonoz, faxez edo mezu elektronikoen bidez) aurkezten bada idazki bat, aipatutako erantza tramitatu beharko da, betiere erreklamazioa aurkeztu duen pertsonaren asmoa administrazioari gertaera jakin batzuen berri ematea baino gehiago bada.

Horrenbestez, administrazioak administratuen nahia bideratu beharko du, antolamendu juridikoak ezarritako prozedura zehatzei jarraiki. Administrazioaren funtzionamendua arautzen duten printzipioek (besteak beste antiformalismoa, asmo ona edo legezko konfiantza) jakinarazpen hauek prozedura zehatzetara bideratzeko aukera ematen diote administrazioari.

Printzipio horiei jarraiki, bai SOS DEIAKek egindako jakinarazpenek eta ondoren beste erakunde batzuetara (ingurumena, osasun publikoa edo udalak) idatziz bidalitakoek bi ezaugarri izan behar dituzte. Batetik, gertaera baten berri ematen dute, ingurumenean eta herritarren osasun publikoan duten arriskua baloratzeko eta, hala badagokio, eta era koordinatuan, aurreikusitako larrialdi-neurriak hartzeko. Eta bestetik, ingurumenaren legezkoatasuna ustez hautsi duen kasu bat salatzen dute.

Herritarrek larrialdiak koordinatzeko zerbitzuari gertaera jakin baten jakinarazpena edo salaketa igortzen dioten kasuetan, prozedurak honakoa bermatu behar du, gutxienez: larrialdiaren tramitazio-egoera ezagutzeko eskubidea, hau da, zerbitzu honek jarraitutako jarduerak, beste administrazio batzuei egindako jakinarazpen edo bideraketak, edo hala badagokio,



artxibatutako kasuak ezagutzeko eskubidea. Jakinarazpen hori ofizioz egin behar da (salaketa jarri duenak erabilitako bitarteko berberaren bidez), erreklamazio-egileak lehenengo jakinarazpenean beren-beregi eskubide horri uko egiten badio salbu.

Nolanahi ere, gertaera jakin batzuk aipatzen dituzten eta industria-jarduera batek pertsonen osasunean edo ingurumenean dituzten eraginak salatzen dituzten jakinarazpen guztiak ingurumen-salaketatzat jo behar dira eta organo eskudunera bidaliko dira, bertan tramitatu daitezten.

Ingurumen-salaketaren kasuan, gai horren gaineko ekintza publikoa betez, administrazio-espeditentea tramitatu behar da, ingurumenari buruzko legedian ezarritako baldintzetan eta Herri Administrazioetako Araubide Juridikoei eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko arazoaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako arauei jarraiki. Hori horrela, kontuan hartu behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigo-ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko 34. artikulua honakoa ezartzen duela, gutxienez: *“organo eskudunaren eskutik kasua ireki ote den azaltzen duen jakinarazpena eta, hala badagokio, hari amaiera ematen dion ebazpena jasotzeko eskubidea”*.

Horren harira, salatutako gaiak baloratu ondoren, organo eskudunak ingurumenaren gaineko diziplina-espeditente egokia ireki behar ote duen baloratu behar du, edo, bestela, eskatzailearen asmoa ezesten duen ebazpena egin. Edonola ere, ekintza publikoa betez, alderdi interesdunei jakinarazi egin behar zaie *administrazioaren eginbideen* esku-hartzea artxibatuko dela, kasuan kasu dagozkion ekintzak eta errekursoak erabiltze aldera.

#### **4. Ingurumenaren gaineko informazioa eskuratzea.**

Aurkeztutako erreklamazio desberdinetan aipatutako gai nagusietako bat zera da, administrazio publikoaren esku dagoen ingurumen-informazioa eskuratzeko zailtasuna. Aurkeztutako kexetan behin baino gehiago planteatu da ez dutela informazio hori ematen edo berandu ematen dutela.

Kontuan hartu behar da ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea, partaidetzarekin batera, ingurumen-eskubidearen funtsezko oinarrietako bat dela. Erakunde honek hainbat aldiz azaldu du eskubide honen garrantzia, beste eskubide batzuek baliatzean, esaterako, herritarren partaidetza-



eskubidea edo administrazio ona jasotzeko eskubidea. Ildo horretatik, Arartekoak gomendio orokor bat sartu zuen Eusko Legebiltzarrerako 2010eko txostenean: *“Gardentasuna eta agiri publikoak eskuratzeko eskubidea. Bereziki, ingurumen-informazioa eskuratzea”*<sup>1</sup>.

Ingurumenari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea gure antolamendu juridikoan ere azaltzen da, zehazki, ingurumenari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorrean eta ingurumen-gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegietara joateko eskubideak arautzen dituen ekainaren 18ko 27/2006 Legean.

Ildo horretatik, araudi honek aipatu eskubidearekin batera doazen hainbat printzipio azaltzen ditu, besteak beste, arintasuna, laguntza, gardentasuna eta eskubide horretaz baliatzeko mugen interpretazio murriztailea. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera, jendeak zenbat eta eskurago izan ingurumenari buruzko informazioa eta informazio hori zenbat eta gehiago hedatu, orduan eta kontzientziario gehiago egongo da ingurumenaren gainean, ikuspuntuak askatasun handiagoz azalduko dira, jendeak gehiago parte hartuko du ingurumenari buruzko erabakiak hartzerakoan, eta, azken finean, ingurumena hobetu egingo da.

Erreklamazioan azaldutako kasuetan, ingurumen-administrazioak erantzuna eman dio egindako eskaerari, baina ingurumenari buruzko legedian aurreikusitako epetik kanpo. Gogoratu beharra dago informazioa azkar eta lehentasunez eskuratu edo bidali behar dela. Horretarako, 27/2006 Legeko 10. artikulua gehienez hilabeteko ebazpen-epea ezarri du, erantzuna eman behar duen erregistroak eskaera jasotzen duenetik zenbatzen hasita. Beren-beregi adieraziz gero, epe hori beste hilabete luzatu ahalko da.

Ingurumenari buruzko informazioa ukatzeko arrazoiak 27/2006 Legeko 13. artikuluan daude tasatuta, eta, artikulua horren arabera, era murriztailean interpretatu behar dira, ingurumenari buruzko informazioa emateko betebeharrari dagokionez.

Elkarteek planteatu dituzten erreklamazioen kasuan egiaztatu ahal izan dugunez, ez da araudian aurreikusitako epea bete. Kasuetako batean, Ingurumen Sailak 1752/2012/23 kexaren espedientean agiriren bat egiten ari zela eta, beraz, eskatutako informazioaren zati bat beranduago bidali behar

---

<sup>1</sup> [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0\\_2090\\_1.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_2090_1.pdf)





izan duela argudiatu du. Gure gomendio orokorrean amaitu gabeko agiritzat jotzen genituen egiten ari ziren edo administrazioaren esku-hartze aktiboa jasaten ari ziren agiriak. Hau da, tramitazioan dauden administrazio-espeditenteak ez dira amaitu gabetzat jotzen, egiten ari diren agiriak edo txostenak baizik. Hori dela eta, ezin da arrazoi horretaz baliatu espeditenteen parte diren eta informazio-euskarri nabarmena osatzen duten akta, txosten edo bestelako agiriei dagokionez, esanahi eta balio propio handia baitute.

Bestalde, informazioa eskuratzeko eskubideaz gain, eta era egokian erabiltzen dela errazteko, legediak ingurumenari buruzko informazioa hedatzeko betebeharra ezartzen du.

Industri-planta horren inguruko airearen kalitatearen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sarearen parte diren kabinetan jasotako datuak aztertu dira. Hori horrela, Ingurumen Sailaren webgunearen bidez, Muskiz (tren geltokia), Abanto eta Muskizko San Julianeko kabinetako aire-kalitateari buruzko datuak eskuratu ahal dira (2012ko ekainaz geroztik).

Kasu honetan, kabinetako gertaerei edo datuak biltzean sortutakoei buruzko informazioa hedatu beharko litzateke, datu guztiak balioztatzea baimenduta ez dagoenean. Era berean, teknikari eskudunak asmo hori ziurtatu beharko luke.

## **5. Elkarteek ingurumenaren kontrol eta diziplinaren kudeaketan parte hartzea**

Erreklamazioa aurkeztu duten elkarteetako batzuek jakinarazi digutenez, instalazio honen funtzionamenduaren administrazio-kontrolaren alorrean partaidetza-mekanismoak falta dira.

Batetik, Muskizko Udalean eratutako jarduera hau jarraitzeko Batzordearen funtzionamendua zalantzan jarri da. Jarraipen-organismo honi ez zitzaion egokia iruditu 2011ko abenduan egin zuen bilerara elkarte ekologikoak ez deitzea. Bestalde, ingurumen-baimen integratuan ezarritako baldintzen betearazpen-mailaren alorrean ingurumen-organoaren eskutik partaidetza-mekanismoren bat ezartzeko aukera planteatzen da.

Bestetik, aitortu beharra dago behin eta berriz eskatu izan dela taldeen eta gizarte-agenteen partaidetza ingurumenaren alorrean. Ildo horretatik, Rioko goi-bilera, NBEren ingurumenerako Agenda 21 eta Aarhuseko Hitzarmena bezalako nazioarteko tresna juridikoek partaidetza sartu dute ingurumenean



eragina duten erabakiak hartzeko orduan. Ingurumena babestu eta zaintzearen alorrean agintari publikoek hartzen dituzten erabakiek eta administrazio-prozedurek hainbat helburu defendatzeko interes publiko argia islatzen dute, besteak beste, ingurumenaren kutsadura kontrolatzeari, garapen iraunkorrari edo osasun publikoari dagokienez. Prozesu horietan perspektibak eta interesak poliedrikoak dira, eta, beraz, ezinbestekoa da herritarrek egin ditzaketen planteamendu desberdinak entzuteko bideak ezartzea. Halaber, ingurumenean eragina duten gaietan era aktiboan parte hartzen duen gizarte zibila dago. Hainbat pertsona, plataforma eta elkartek etengabe aldarrikatu dute ingurumen egokiaren defentsa eta, kasu batzuetan, interes kolektibo jakin batzuk bermatzeko taldeak ere sortu dira. Ikuspegi partikular edo kolektibo hori partaidetzaren bidez lortzeko aukera erabaki hobe eta egokiak hartzeko beta da.

Hori dela eta, partaidetza ez da erabakiak hartzeko prozesuan jarri nahi den eragozpen formal bat, baizik eta erabaki publikoen egokitasuna eta legitimazioa hobetu eta bermatzeko aukera. Ondorioz, partaidetza-formula egokiak identifikatzea ez da arazo edo traba gisa ulertu behar; intentsitate altuko demokrazia batek eskatzen dituen irtenbideak dira.

Demokraziari eta partaidetzari buruz egin genuen gomendio orokorrean<sup>2i</sup> adierazi genuenez, herritarren partaidetza industria-jardueren funtzionamenduak ingurumenean piztu dituen gatazkak kudeatzeko tresna erabilgarria da. Eta partaidetza ez da jarduera horien baimen-prozesuetan soilik aplikatu behar; baita, administrazioaren baimena eskuratu ondoren eta neurri zuzentzaile egokien pean, ingurumenerako edo pertsonen osasunerako ondorio guztiak ebatzita geratzen ez diren kasuetan ere. Horrenbestez, administrazio publikoek alderdi interesdunen esku-hartzea duten partaidetza-prozesuak erabil ditzakete ingurumena kontrolatu eta ikuskatzeko eskumenez baliatzean.

Partaidetza-formulak eta horien dinamizazio-teknikak oso anitzak dira. Edonola ere, mahai horietan, administrazio-organo eskudenez gain, erakunde industrialaren ordezkari bat eta auzokideen edo ekologisten elkarteko ordezkari bat egon behar da, batez ere ingurumen-prozesu baten harira sortu diren elkarteen kasuan.

---

<sup>2</sup> [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0\\_2626\\_1.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_2626_1.pdf)



Prozedura horietan, topaketa-mahai bat eratu eta bertan alderdi interesdunek parte hartzen dutenean, ingurumenari buruzko informazioa hedatzen da eta proposamenak, salaketak edo bestelako aldarrikapenak aurkezteko bide egokia da. Era berean, esperientzia hauek positiboak izan daitezke jarrerak hurbiltzeko, edo, behintzat, inplikaturik dauden alderdiak aitortu ahal izateko.

Partaidetza-prozesu horiei dagokienez, gure aburuz inplikaturik dauden administrazioek bitarteko egokiak eta borondate politiko nahikoa jarri behar dute kalitatearen oinarriko estandar batzuk betetzeko, honako planteamenduetan oinarritutako ingurumen-gaietan parte hartze aldera. Agintariek eta funtzionarioek partaidetza-prozesuetan esku hartzen duten agente guztien, eta, bereziki, interes kolektiboaren alde sortu diren elkarten arteko errespetua sustatu behar dute. Partaidetza-prozesua baino lehen administrazioak bere esku duen informazio oro eman behar du ezagutzera, horretarako bitarteko egokiez baliatuko delarik. Administrazioak formula elektronikoko egokiak bilatu behar ditu jarraitzen diren tramiteak edo agiri berriak hedatzeko, behintzat pertsona interesdunen artean. Partaidetza-prozesuak proposamen ireki batean oinarritu behar dira. Halaber, deliberazio-prozesuan bitarteko egokiak egon behar dira, agiri guztiak eskuratu ahal izateko edo ohar eta proposamenak planteatu ahal izateko, idatziz nahiz elkarrizketa sustatzen duten bestelako partaidetza-tekniken bidez (herritarren foroak, epaimahai herrikoiak). Era berean, prozeduran interesatuta dauden pertsona guztiek emaitzari buruzko informazioa jaso beharko dute eta, informazio horren barruan, erabakiari, aurkeztutako alegazioei eta partaidetza-prozesuak prozesuan duen eraginari buruzko datuak jasoko dira.

Hori guztia dela eta, auzokideen eta ekologisten elkarteak Muskizko Udalaren industria-jardueraren udal-jarraipenerako batzordean egongo direla bermatzeko interes publikoa kontuan hartu behar dugu. Batzorde hori foro ezin hobea da, Muskizen dauden auzokide eta ekologisten elkarteek udalak hartutako erabakiei buruzko informazioa eskuratu dezaten, ingurumenaren eta osasunaren alde egin eta hobekuntza-proposamenak aurkezteko.

Halaber, gai honetan inplikaturik dauden administrazioek, eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak partaidetza-mekanismoak ezarri behar dituzte, ingurumenaren gaineko ondorioak eta herritarren osasunaren gainekoak jarraitzeko. Mekanismo horietan beti egon beharko dira presente bai industria-



jardueraren bai ingurumena babestea xedetzat duten elkarte, erakunde edo taldeen ordezkariak.

Kexa honetan ageri diren datuak eta inplikaturako administrazioen eskutik jasotako informazioa aztertuta eta aurreko oharrak kontuan hartuta, honako ondorioak atera ditugu:

### Ondorioak

1. Petrolioa fintzeko industria-jarduerak, egun, berau martxan jartzeko eska daitezkeen ingurumen-baimen egokiak ditu. Baimen horietan kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko araubidea sartu da, ingurumenaren eta osasun publikoaren babes-maila egokia bermatze aldera. Baimen horrekin batera, ingurumen-administrazioak jarduera horren kontrola eta jarraipena egiteko ahalmena dauka, ustiapena martxan egoteko ezarritako neurri zuzentzaileak eta isuriaren muga-balioak betetzen direla zaindu ahal izateko. Ingurumen Sailaren ustez, azken urteetan airearen kalitatea zaintzeko zaintza-sarera konektaturako immisio eta isuriak neurtzeko ekipoetan eskuratutako datuak kontuan hartuta, kutsadura atmosferikoari buruzko legedian ezarritako parametroak betetzen ari dira.
2. Onartutako ingurumen-baimenaren harira, Ingurumen Sailak ezarritako neurriak oso-osorik betetzen direla kontrolatzen jarraitu behar du, ingurumena zaintzeko programan jasotako urteroko informazioaren arabera eta industria-jardueraren jarraipena egiteko dituen kanpoko kontrol-mekanismoei jarraiki.
3. Ingurumen-baimen integratuaren ondoren, herritarrek etengabe aurkeztu dituzte salaketak, mota desberdinetako gertaeren ondorioz lantegiaren inguruan bizi diren pertsonen osasunerako eta ingurumenerako ondorio posibleei buruz.

Bizilekuaren bortxaezintasunerako eskubidea era egokian babesten dela bermatze aldera, Arartekoak irmotasun osoz eskatzen die ingurumen-kontrol, osasun publiko eta industria-arriskurako administrazio eskudunei dagokien tramitea egin dezatela (ofizios edo salaketagatik) planta honen inguruan bizi diren pertsonen sortutako eragozpenak, herritarren osasunerako kalteak eta ingurumenerako ondorioak direla-eta aurkeztutako erreklamazioen aurrean.





4. Erreklamazio horiei erantzuteko jarraitutako administrazio-neurri zehatzei dagokionez, Ingurumen Saila neurri osagarriak sartzeko aukera baloratzen ari da, jarduerak inguru horretan duen eragina murrizte aldera.
  - KOL esposizio altuen episodio hauen arriskua ebaluatu eta murrizteko aurreikusitako neurrien barruan, Arartekoari egokia iruditzen zaio Ingurumen Sailari eta Osasun eta Kontsumo Sailari honako iradokizuna egitea: osasunerako kalte gehien eragiten duten KOLen (bentzenoa kasu) esposizio altuetarako muga-balioak proposatzeko aukera baloratzea.
  - Industria-arriskuei aurre hartzeko politikari dagokionez, Arartekoak dio garrantzitsua dela industria-jarduera arriskutsuen arriskuei aurre hartzeko eska daitezkeen planifikazio-tresna desberdinak egoki hedatzen direla eta informazio egokia ematen dela bermatzea. Kasu honetan, industria-arrisku honen gaineko administrazio eskudunek eguneratuta eduki behar dituzte tresna hauek, larrialdietarako kanpo-plana barne. Eguneraketa-prozesu hauetan, administrazioen arteko koordinazioarekin batera, interesa duten pertsona eta elkarteen partaidetza egokia bermatzea ezinbestekoa da.
5. Aurkeztutako salaketak tramitatzean jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, Arartekoari beharrezkoa iruditzen zaio hainbat iradokizun egitea, administrazio inplikatuak kontuan har ditzaten:
  - Herritarrek gertaera jakin baten jakinarazpena edo salaketa egiten duten kasuetan, gure ustez, Herrizaingo Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko Zerbitzuak, SOS DEIAK zerbitzuaren bidez, honakoa bermatu behar du kasu guztietan: larrialdiaren tramitazio-egoera ezagutzeko eskubidea, hau da, zerbitzu honek jarraitutako jarduerak, beste administrazio batzuei egindako jakinarazpen edo bideraketak, edo hala badagokio, artxibatutako kasuak zeintzuk diren jakiteko eskubidea.
  - Jakinarazpen hori ofizioz egin behar da (salaketa jarri duenak erabilitako bitarteko berberaren bidez), erreklamazio-egileak ahozko jakinarazpenean beren-beregi eskubide horri uko egiten badio salbu.
  - Era berean, beharrezko bitartekoak jarri behar dira, herritarrek administrazioei igorritako jakinarazpenak, gertaera jakin batzuei buruzkoak direnean eta industria-jardueraren ondorioz ingurumena edo pertsonen osasuna kaltetu dela





salatzen dutenean, ingurumen-salaketa gisa jo daitezten eta organo eskudunera bidal daitezten, era egokian tramitatuak izateko.

- Horren harira, salatutako gaiak baloratu ondoren, Ingurumen Sailak ingurumenaren gaineko diziplina-espeditente egokia ireki behar ote duen baloratu behar du, edo, bestela, eskatzailearen asmoa ezesten duen ebazpena egin.

Edonola ere, ingurumenean ekintza publikoaz baliatuz gero, alderdi interesdunek salaketen harira jarraitutako tramiteak jakinarazteko betebeharra izango dute.

6. Informazioa eskuratzeari dagokionez, ingurumen-administrazioak arin eta lehentasunez eman beharko dio erantzuna ingurumenari buruzko informazioaren eskaerari, ingurumenaren legedian aurreikusitako epean. Era berean, plantaren inguruan airearen kalitate-sareari buruzko ingurumen-informazioa hedatzen jarraitu behar du, funtzionamenduan egon daitekeen gertaera orori buruzko datuak emango dituelarik.
7. Elkarteek ingurumena kontrolatzeko kudeaketan izan behar duten partaidetzari dagokionez, auzokideen eta ekologisten elkarteak Muskizko Udalak industria-jardueraren jarraipenerako udal-batzordean presente daudela bermatzeko interes publikoa kontuan hartu behar dugu. Batzorde hori foro ezin hobea da, Muskizen dauden auzokide eta ekologisten elkarteek udalak hartutako erabakiei buruzko informazioa eskuratu dezaten, ingurumenaren eta osasunera alde egin eta hobekuntza-proposamenak aurkezteko.

Halaber, Arartekoaren ustez, gai honetan inplikaturako administrazioek, eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak herritarren partaidetza-mekanismoak (mahaia, foroa edo bestelako formatuak) ezarri behar dituzte, ingurumenaren gaineko ondorioak eta osasunaren gainekoak jarraitzeko. Mekanismo horietan beti egon beharko dira presente bai industria-jardueraren bai ingurumena babestea xedetzat duten elkarte, erakunde edo taldeen ordezkariak.